



JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS
Viceconsejería de Justicia
Dirección de la Administración de Justicia

EBAZPENA, 2025EKO URTARRILAREN 13KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO PROZEDURARAKO DEIALDIA EGITEN DUENA.

- 1.- Botere Judizialaren Lege Organikoak, 527. artikuluan, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako betetzea aurreikusten du.
- 2.- Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, Justizia Administrazioaren zerbitzueko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko araudia onartzen duenak, zerbitzu-eginkizunei buruzko gaia arautzen du 73. artikuluan.
- 3.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen du.
- 4.- Deialdi honen xedea da I. eranskinean adierazten den lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako betetzea.
- 5.- Auzitegi-medikuen kidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioek eskatu ahal izango dute zerbitzu-eginkizuna.
- 6.- Aldi baterako lanpostuak betetzeko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.
- 7.- Eskabideak: hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/12050>
- 8.- Behin-behineko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web orrian, eta hiru egun balioduneko epea emango da, argitaratzen denetik, alegazioak egiteko.
- 9.- Behin betiko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziaren webgunean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 13a

Andrea: María Dolores Movilla Rivas

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA